



MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketaketa	2015	48.978.520 euro
		2016	58.690.523 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA.

Izena Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Zerbitzu Orokorrak

Kodigoa 5.01

Genero Egokitasuna Txikia

Aurrekontua 2.044.719 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)				1.083,97	2.044,72				88,63%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/				2,85%	3,48%				22,24%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK.

2.1. Deskribapen orokorra:

Programa honen jarduera ildo nagusia da departamentuaren programak eta jarduerak bultzatu, koordinatu eta kontrolatzea, foru diputatuak, zuzendaritza nagusiek eta zerbitzuek behar duten laguntza eta aholkularitza ematea eta departamentuko sistema administratiboak eta informaziokoak hobetzeko jarduerak sustatzea.

Programaren aurrekontuan Departamentuaren gastu komunak sartzen dira, ondoko hauek: publizitatea eta propaganda, azterlanak eta ebazpenak, informatikako baliabideak eta aplikazioak, iragarki ofizialak, altzariak eta tresnak erostea, argindar hornidura, telefonoa, egintza ofizialak, bulegoak garbitzea, liburuak erostea, argitalpenak, eta dieten eta kilometroen ordainketa.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Sustatzea idazkaritza teknikotik Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamentuko zerbitzuetako lanean genero ikuspegia sartzea.	Diru lagundutako proiektuen balioespen teknikoan, berdintasunaren ikuspegia sartzea.	Diru laguntzen kop.	80
Lankidetzako hitzarmenetan eta kontratazioan genero berdintasunaren ikuspegia sartzea.	Departamentuak sinatuko dituen hitzarmenetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Hitzarmen kop.	20
	Departamentuko kontratuetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Kontrato kop.	35



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA.

- Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA.

- Bai egiturak osatzerakoan, bai komunikabideen aurrean edota herritarren aurrean aurkeztu behar garenean gizon emakumeen oreka bereziki lantzen dugu.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU.

- Ez.

5. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa	2015	48.978.520 euro
		2016	58.690.523 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Garraiaeren antolamendua

Kodigoa 5.10

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 37.453.473 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	29.857,00	28.525,00	30.418,00	31.854,26	3.745,47	-4,46%	6,64%	4,72%	-88,24%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	30,95%	26,07%	27,63%	67,72%	6,38%	-15,77%	5,98%	145,10%	-90,58%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK.

2.1. Deskribapen orokorra:

Helburuak:

Aurrekontu programa honetan jasotzen dira Departamentuaren jarduketa nagusiak bidaiarien garraio publikoa hobetzeko arloan, kontuan hartuta helburu nagusia dela hiritarren mugikortasuna eta garraio sistemaren irisgarritasuna eta iraunkortasuna bermatzea.

Era berean, modu eraginkorrean garatu nahi da garraio publikoa, bai bidaiariena baita salgaiena ere, antolatzea, kudeatzea eta ikuskatzea.

Hartzaileak

a) Orokorrean: hiritar guztiak, bidaiarien errepideko garraio publikoko zerbitzu bat eskainita, iraunkortasun handieneko mugikortasun bitartekoak gehiago erabiltzea ahalbideratzeko, ibilgailu pribatua gehiegi erabiltzeak dituen ondorio kaltegarriak saihestuz.

Zehatzago, erantzuna ematen zaie garraio publikoaren mendeko gizarte sektoreen mugikortasun beharrei (haurrak eta gazteak, hirugarren adinekoak, emakumeak, mugikortasun mugatuko pertsonak, errenta txikien hartzaileak, landa inguruetakoz biztanleak, etab.) eskaintza egokituta, ahal den neurrian, bakoitzaren berezitasunetara.

Jarduketak:

Laburbilduta, arlo hauetan taldekatu daitezke:



- a) Txartel Bakarraren sistema sendotzea eta hedatzea Gipuzkoan. Programaren gasturik handiena da, eta helburua da, batez ere, garraio publikoko eragileek jasaten duten defizit ekonomikoa finantzatzea. Neurri txikiagoan, erabiltzen da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza finantzatzeko, Foru Aldundiak % 45eko partaidetza baitu bertan, eta Mugi sistemako txartelak kudeatzeaz arduratzen baita; Donostiako Udalarekin lankidetzan finantzatzeko arlo horretan; eta Lurraldebus Gunearen kontrol zentroaren funtzionamendu gastuak finantzatzeko.
- b) Garraio azpiegitura arloan, herri arteko geltokietako markesinak eta bazterlekuen inbertsioak eta errepidean pisaketak egiteko baskulak, salgaien garraioa kontrolatzeko. Era berean, aipatzekoak dira, bolumenarengatik, Gipuzkoako hiriburuko etorkizuneko autobus geltokia egiteko diru laguntzak.
- c) Taxi zerbitzuari dagokionez, diru laguntzak aurreikusten dira ibilgailu egokituak erosteko eta, taxibusak erabiltzeko kasu zehatz batzuetan.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Ezagutzea emakumeek eta gizonen nola erabiltzen duten garraio bideak.	Estatistika datuen informazioa lortzea sexuen arabera banatuta.	Bidariari (emakumeak) Zbk.	13.500.000
		Bidariari (gizonak) Zbk.	6.500.000
	Adinaren eta sexuaren araberako txartelen banaketari buruzko datuak lortzea.	Emakumeen zbk.	370.000
		Gizonen zbk.	180.000
	Gizonezkoen eta emakumezko gidari profesionalen buruzko datuak eskuratzea.	Emakumeen zbk.	50
Genero ikuspegia txertatzea mugikortasunari buruzko azterlanetan.	Azterlanak	3	
Defizita duten guneak eta ordutegiak bultzatzea.	Desarrollo de campañas informativas.	Kanpainak.	1
	Foru Aldundiaren eskumeneko emakidetan bidaiarien errepide garraioko gaueko autobus zerbitzuak finantzatzeko diru laguntzak ematea.	Enpresen kop.	4

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Azkenik, generoaren ikuspegitik, ikus daiteke garraio-moduak erabiltzean badaudela desberdintasun batzuk emakumeen eta gizonen artean. 2011. urteko azken datuen arabera, gizonen artean nagusitasun handiagoa dute ibilgailu pribatuetako joan-etorriek, mugimendu guztien % 46,4, hain zuzen; emakumeen artean, berriz, % 27,8 dira. Halaber adierazi behar da ikusten dela emakumeen mugikortasun-ereduak gehiago zaintzen duela iraunkortasuna.

Garraiolari lanbidean sartzeari dagokionez, gizonezkoek hartua daukaten sektorea izanik, sarrera frogan azterketen emaitzak ikusita, ondoriozta daiteke emakume kopurua pixka bat igo dela bidaiarien garraio arloan. Hala ere, horren arrazoia izan daiteke egungo egoera, Lanbidek diruz laguntzen dituen ikastaro kopurua handitu egin baita, baztertutako pertsona talde batzuen lan munduan txertatzea errazteko.



4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA.

Azterlan berezietan eta ditugun datu estatistikoetan araberan, ondoriozta daiteke emakumeak direla garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak, eta ibilgailu pribatuan estres faktorea eta soilik balio instrumentalak hautematen direla, boterearen edo ospearean balioekin lotzen den gizonaren paradigmaren aurrean. Era berean, emakumearen mugikortasun ereduak desberdintasun batzuk ditu gizonarekiko: sendiaren inguruarekin eta gizartearekin lotutako mugikortasuna, garraio publikoa erabiltzeko ordutegi aukera handiagoa, joan-etorri gehiago eta distantzia txikiagoak, eta abar.

Bestalde, garraioaren sektore ekonomikoan gizon kopurua izugarria da, emakumeak gutxi batzuk bakarrik baitira, batez ere merkantzien eremuan; hala ere, ikus daiteke lan munduan sartzeko laguntza publikoek hobetu egiten dutela emakumeek sektorean duten parte hartze kuota.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA.

Gizonen eta emakumeen bizitza kalitatearen programan duen eragina aztertzeko ikuspegitik, argi dago batez ere eragina duena “mugikortasun egoki bat izateko” ahalmenean. Ondorioz, garraio publikoa hobetzeko politika publikoek eragina dute, baita ere, lan, hezkuntza, osasun, aisia eta kirol gaietako beharren asetze mailan, arrazoi horiengatik egiten diren joan-etorriak errazten baitituzte, batez ere garraio publikoaren behar handiena duten biztanleengan, eta horien artean daude emakumeak.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU.

Estatistikako ahalik eta informazio gehiena biltzen ari gara, baina oraindik ez da egin azterlan berezirik.

5. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Klausula berri bat sartu da emakiden bost plegutan, autobus gidarien artean emakume gehiago izan daitezten. Emakidadun izango direnei ezarri zaien betebeharrak berri horren bidez, kontratua gauzatzeko gidari gehiago kontratatu behar badira eta kontratistak emakume gutxi baditu kontratuari atxikitako langileen artean, enpresak beharrezko neurriak hartuko ditu gidaritarako kontratatzen diren pertsonen gutxienez % 40 emakumeak izan daitezten. Langileen arteko desoreka dagoela ulertuko da langile guztien % 40 baino gutxiago emakumeak badira.

Jarduera sektorearen ezaugarriengatik ezin bada, emakume gutxi aritzen direlako lan horretan, aurreko paragrafoan adierazitako emakume portzentajea kontratatu, gorabehera hori kontratistak espresuki adierazi beharko du, eta baldintza hori ezin duela bete zuzituzten duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Nolanahi ere, neurri horrek indarrean jarraituko du, kontuan hartuta autobus gidarien sektorearen errealitatea, gidarien % 40 izatea lortu arte.



MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa	2015	48.978.520 euro
		2016	58.690.523 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA.

Izena Bizikleta bideak

Kodigoa 5.11

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 2.624.377 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	11.084,60	8.559,45	5.312,84	2.752,89	2.624,38	-22,78%	-37,93%	-48,18%	-4,67%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	6,42%	8,87%	4,86%	6,08%	4,47%	38,16%	-45,21%	25,10%	-26,45%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK.

2.1. Deskribapen orokorra:

Programa honek Gipuzkoako Bizikleta bideen Lurraldearen Arloko Planak aurreikusten duen bizikleta-bideen sarea garatzen du. Mugikortasun iraunkorra sustatzea da bere helburu nagusia.

Aurrekontuen aldetik, bizikleta bide horiek egiteak garrantzia handiena badu ere, programak garrantzi handiko beste ekintza batzuk jasotzen ditu, aurrekontuetan ikusgaitasun txikia dutenak, hala nola, bizikleta bideen erabilera eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekintzak.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurrekusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Gipuzkoan bizikleta erabiltzea sustatu.	Bizikleta erabiltzea sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Diru laguntzen kop.	20

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA.

Azken urteotan gora egin du etengabe foru bizikleta bideen erabilerak. Foru bizikleta bideetako erabileraren inguruan egindako inkestek azaltzen digutenez, erabiltzaileen %74a oinezkoak dira, eta %26a txirindulariak. Azken hauen kopurua poliki-poliki- gora doa.



Oinezkoen artean, gizonezkoak eta emakumezkoak nahiko orakatuta daude; txirrindularien artean, berriz, emakumezkoen proportzioa txikia izanda, gero eta handiagoa da. Alde hori azalduko lukeen arrazoietako bat izan liteke gizonezkoen arteko kirol txirrindularitzarako joera handiagoa.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA.

Jasotako datuek argi eta garbi adierazten dute foru bizikleta bideak egin izanak emakumeak neurri handiagoan bultzatzen dituela bizikleta erabiltzera. Hala ere, azpimarratu behar da emakumezkoek gizonezkoekin alderatuta bizikleta gehiago erabiltzen dutela lanera joateko, erosketak, bisitak edo gestioak egiteko eta aisiarako. Gizonezkoek bereizten dira bizikleta kirola egiteko erabiltzen dutelako, neurri handi batean.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA.

Gizonen eta emakumeen bizitza kalitatearen programan duen eragina aztertzeke ikuspegitik, argi dago batez ere eragina duena "mugikortasun egoki bat izateko" ahalmenean. Ondorioz, bidegorrien sarea hobetzeko politika publikoek eragina dute, baita ere, emakumeen eta gizonen lan, hezkuntza, osasun, aisia eta kirol gaietako beharren asetze mailan.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU.

5. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa	2015	48.978.520 euro
		2016	58.690.523 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA.

Izena	Pasaialdeko antolaketa eta sustapena		
Kodigoa	5.20		
Genero Egokitasuna	Ertaina		
Aurrekontua	7.877.077 euro		

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)			2.492,73	4.538,47	7.877,08			82,07%	73,56%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/			8,44%	10,03%	12,43%			18,77%	23,89%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK.

2.1. Deskribapen orokorra:

Interes orokorreko portu azpiegitura bat izateak eragina du neurri ezberdinean Pasaia, Donostia, Errearteria eta Lezoko udalerrien hiri izaeran, eta azpiegitura bera ere baldintzatuta dago hiriguneak gertu daudelako. Portu eremuak aukera eremu gisa hartzen dira aspalditik, garai bateko hirigintza garapenetik sortutako akatsak konpontzeko eta zentralitate berria duten areak sortzeko aukera ematen dutelako, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.

Portuak, bestalde, beharrezkoa du bere jarduera hirigintza esparruan txertatzea eta hiriguneekin dituen auzo gaiak konpontzea, eta baita sarbide batzuk bermatzea ere, aldi berean bere jarduerarako egokiak izango direnak eta inguruan nahi ez diren eraginak eragingo ez dituztenak, alegia.

Pasaia badiaren inguruaren antolaketari edo Jaizkibelpe bezala ezagutzen den eremu zabalagoari buruz orain gutxi eginiko hainbat azterlanek agerian uzten dute lehen aipatutako udalerrietako plangintzen artean dagoen lotura estua, batez ere Pasaia portuak bateratzen dituen puntuan. Portuaren ingurua plangintza bateragarrien eremu gisa ezartzen dute Lurralde Antolaketako Jarraibideek berariaz, eta, besteak beste, portuko Plan Bereziak eragina duen udalerrri guztiak sartzen dira bertan.

Esparru horren barruan, portu eremuak aukera eremu gisa hartzen dira aspalditik, garai bateko hirigintza garapenetik sortutako akatsak konpontzeko eta zentralitate berria duten areak sortzeko aukera ematen dutelako, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.

Askotan onartu da Pasaia udalerrria biziberritzeko jardun bereziak abian jarri behar direla eta, horrela, hainbat erakundeek abian jarritako zenbait jardueren artean, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pasaia Udalaren artean 2007ko martxoaren 15ean.



Geroago, 2008. urtean bidezkoztat jo genuen, Foru Aldundiak nahiz Udalak, 2007an sinatutako hitzarmena agiri honekin ordezkatzeko. Agiri honen xedea da bi aldeek sustatzeko eta finantzatzeko konpromisoa hartzen duten jardura multzoa jasotzea, berriak zein lehenago hitzartu eta oraindik amaitu gabe daudenak.

Esparru horren barruan, 2016. urterako aurrekontu proiektuak partida batzuk xedatzen ditu bereziki Pasaialdeako badia berreskuratzeko inbertsioak gauzatzeko.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Diru laguntzen balioespenean genero berdintasunaren ikuspegia gehiago nabarmentzea.	Diru laguntzen balioespen irizpideetan genero berdintasunaren ikuspegia eta trataera aintzat hartzea.	Diru laguntzen kop.	10
Gipuzkoako Foru Aldundiko Pasaialdeari buruzko marketing eta publizitate lanak koordinatzea generoaren ikuspegia sartuz.	Komunikazio kanpainetan generoaren ikuspegia sartzea.	Kanpaina kop.	2

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA.

Ez dugu eguneratutako datuak diruz laguntzen ditugun jardueretan lagundutako zenbat diren emakumeak eta gizonak.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA.

Hiri espazio publikoetan egiten diren esku-hartzeak, espazio irekietan naiz eraikietan, gizon-emakumeen egunoroko bizimoduan eragiten dute, horregatik, bada, genero ikuspuntutik aztertu behar da hiri espazioaren erabilera eta gozamina.

Azpiegituretan egiten den gastuari buruzko politikek oso zeregin garrantzitsua daukate eredia aldatzea bat bultzatzeko, berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldekoa, izan ere, egiten diren azpiegituren arabera, sexu arteko desberdintasuna finkatzen duten rolen egiturazko aldatzea egin ahal izango da edo ez da egingo.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU.

Ez.

5. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa	2015	48.978.520 euro
		2016	58.690.523 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA.

Izena	Lurralde Antolaketa
Kodigoa	5.22
Genero Egokitasuna	Ertaina
Aurrekontua	1.663.888 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)			2.848,81	2.612,72	1.663,89			-8,29%	-36,32%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/			9,65%	2,85%	2,62%			-70,47%	-7,90%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK.

2.1. Deskribapen orokorra:

Departamentuaren ardatzetako bat da programa hau ere, eta hauexek dira beraren bitartez landu nahi diren funtsezko ildoak:

Aldundiak hirigintzako espedienteak aztertu eta ebazteko duen eskumena betetzearren, departamentuari dagokio espedienteok aztertzea eta, ondoren, ebazteko proposamena organo eskudunari aurkeztea, bultzatuz, ahal den neurrian, datuak eta artxiboa tratatzeko prozedura digitalen erabilera.

Gipuzkoarena eta Gipuzkoarentzako izango den lurralde eredu bat definitzeko eta arian-arian abian jartzeko, programa honen bitartez departamentuak era proaktiboan parte hartzen du EAEan ezarrita dauden antolamendu bitarteko guztietan. Era berean, beharrezkoa baldin bada, bitarteko berriak ere jarriko ditu martxan helburu hori betetzeari begira, hain zuzen ere Aldundiko gobernu taldeak gizarteari proposatzen ari zaion Gipuzkoako Proiektuaren lurralde ikuspegia definitzeko eta inplementatzeko aitzindaritzea betez. Horrek dakar departamentuak partaidetza aktiboa eduki behar duela Lurraldearen Zatik Planen eta Lurraldearen Arloko Planen idazketan eta eztabaidan, bai eta orain dauden edo aurrerantzean sor litezkeen gainerako mekanismoetan ere.

Hirugarren ildo ere aurreko biek in estu-estu lotua dago eta helburua du datu espazial eta geografikoen azpiegitura amankomun bat eraikitzea eta Aldundi osoaren, gainera erakunde publiko nahiz pribatuen eta, oro har, herritarren eskura jartzea.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Datu espazialen azpiegitura amankomuna erakunde publiko nahiz pribatuen eta makumeen eta gizone esku jarzea.	Kontratutako proiektuetan berdintasunaren ikuspegia sartzea.	Kontratuen kop.	15

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA.

B5m.gipuzkoa.eus ataria egunean batez beste 2.520 erabiltzaile desberdintzek erabiltzen dute, baina ez daukagu erabiltzaileen daturik (generoa, adina, prestakuntza eta abar); izan ere, informaziorako sarbidea libre da eta erabiltzeko ez dago alta eman beharrik edo galdetegi bat ere beharrik.

Azterketaren beste ikuspegi bat da programa honen azpi-kontratazioan generoaren aldetik ematen den aldea. Kontuan hartuta kontratazioen %90a profesional autonomo edo enpresa txikitara bideratuta dagoela, hurrengo generoen arteko aldearen ratio batzuk aurkez ditzakegu:

Urtea	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Inbertsioa	1.365.000	935.000	650.000	370.000	300.000	310.000
Profesionalak	38	32	20	17	14	14
% emakumeak	26,30%	37,50%	40,00%	35,30%	28,57	28,57
% Gizonak	73,70%	62,50 %	60,00%	64,70%	71,43%	71,42%

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU.

Ez.

5. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez: